# LUCIAREN KONTAKIZUNA: LESBIANA IZATEKO BORROKA

# LUCIAREN KONTAKIZUNA: LESBIANA IZATEKO BORROKA

Ondoren irakurriko duzuen kontakizunak Luciaren bizi-ibilbidea islatzen du, gaztetandik emakumeek erakartzen dutela jakin duen 68 urteko anderea.

**ALDARTEn**, jakin ongi dakigu Luciaren historia usu gertatzen dela haren adina duten hainbesterengan, eta horregatik, Luciaren bizitza dokumentu honetan agertzearen arrazoietako bat zuek ere zeuen historiak kontatzera animatzea da, eta baita, galtzerik edo anonimatuan geratzerik nahi ez dugun eta oso baliotsuak iruditzen zaizkigun beste historia batzuk berreskuratzea ere.

Gure asmoa errealitate bihurtzeko, adinekoen **LGT taldea sortu dugu ALDARTEn**. Gunea bizi historiak berreskuratzeko ez ezik konpartitzeko ere sortu dugu, eta, bide batez, esperientzia bertsuak bizitu izan dituzten beste pertsona batzuk ezagutzeko ere. Oroz gain, topagune eta harreragune izango dugu.

Taldea astero bilduko da, eta 50 urtetik gorako LGTak elkartu nahi ditu. Interesatuko zaizu, akaso. Hala bada, hots iezaguzu eta jarri gurekin harremanetan.


ALDARTE

CENTRO DE ATENCIÓN A GAYS, LESBIANAS Y TRANSEXUALES
GAY, LESBIANEN ETA TRANSEXUALEN ATENZIO ZENTROA

**ALDARTE**

**"Gays eta Lesbianen arretarako zentroa"**

Berastegi kalea 5 - 5.a - Dpto. 8-9

48001 Bilbao

T: 944237296

aldarte@aldarte.org

WWW.aldarte.org



bbk

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## Haurtzaroa/Nerabezaroa

Emakumeekiko maitasuna bizitzeko nire oroitzapenik zaharrenak hiruzpalau urte nituenekoak dira, amarekin ezkontza deitu izan dudanaren garaikoak. Elizan geunden biak, eta norbait ari zen ezkontzen. Amari zertan ari ziren galdetu nion eta berak: "oso maite dute elkar eta ezkontzen ari dira" erantzun; orduan, nik: "eta zergatik ez gara zu eta biok ezkontzen?", eta berak: "tira! Haiek bukatutakoan egingo dugu geurea", eta hala izan zen. Nik uste dut ordutik naizela lesbiana.

Nire aita metalurgiako langilea zen, eta amak jaioberrientzako puntuzko ehunak egiten zituen. Ama izugarri maitatu nuen, eta ardatzetako bat izan zen nire bizitzan. Gure testuingurua oso erlijiosoa zen. Kolegioan eta kontserbatorioan ibili nintzen, eta geroxeago, batxilergoa egin nuen. Neskatoak maitasun kontuetan hasi ziren garaian matematikako irakasle bati begiratzen nion. Matematikako eskolak noiz iritsiko irrikaz egoten nintzen.

## Gaztaroa

Nerabezaroan argi nuen emakumeek erakartzen nindutela, eta hori sentitze hutsak beldurtu egiten ninduen, ongi bai bainekien ez zela normala. Nire lagunekin irteten nuenean denak aritzen ziren "bai guapoa hau edo beste hura" esaka; nik, egia esan, neska ederrei begiratzen nien, ez mutil ederrei. Koadrilan ateratzeak aspertu egiten ninduen, dena baitzen mutiletan aritzea, eta nik neure burua lekuz kanpo ikusten nuen. Pixkanaka jendearengandik urrunduz joan nintzen. Ez nengoen inorekin gustura. Eta oso bakarrik nengoen.

Batxilergoa bukatu nuenean Arturo izeneko mutil batekin hasi nintzen irteten; gerora nire senarra izango zen. Hura Sevillara joan zen, eta ni hemen geratu nintzen, eskola txiki batean gizarte-lanak egiten.

Gizarte-lana amaitu eta Sevillara abiatu nintzen ikastera. Nolabaiteko harremana izan nuen Arturorekin. Ikasten jarduten nuen bitartean, matematikako eskolak ematen nituen, eta gogoan dut hainbat ikaslerekin maitemindu nintzela; erraz uler daitekeenez, isilpeko maitemintzeak izan ziren, areago, ikasle bainituen. Behin baino gehiagotan maitemindu naiz neskekin, baina beti isilpean.

## Ezkontza

Zinez maite nuen Arturo. Gizonez maitemindu ahal izan banintz hartaz maiteminduko nintzen; areago, sarritan uste izan nuen maitemindurik nengoela, baina ez zen benetako maitemintzea, emakumeekiko sentitzen nuenaren lakoa. Hurbilketa fisikoa suertatzen zen bakoitzean oilo ipurdia jartzen zitzaidan eta "aizu, utz dezagun" esan ohi nion, beste inolako azalpenik eman gabe. Zer esan behar nion, bada? Nik ere ez nuen oso argi, eta gertatutakoa puztu gabe esan dezaket, gutxienez 10-12 aldiz egin genuela harremana eteteko saiakera. Azkenean ezkondu egin ginen, eta bi hilabete igarotakoan, ederki asko konturatu nintzen hanka hondoraino sartu nuela. Elkarri errespetu handia izan arren, eta oso maite banuen ere, ni ez nengoen maiteminduta.

Txintik ere ez nuen esaten, baina egun batean, lanean, pertsona bat ezagutu nuen, sekulako neska ederra! Hura zen gorputza, hura! Xarma berezia zerion. Maitemindu egin nintzen. Ezin nintzen, ordea, egoera hartaz mintzo; erredun sentitzen nuen neure burua, baina lanera abiatzen nintzenean hura zen bizi-poza! Eta horrela pasatu ziren sei urte.

Historia latza izan zen. Ez nion senarrari zer gertatzen zitzaidan esan, horrek atsekabetu egingo baitzuen. Baina bizitzak (nire seme-alabek, senarrak, lanak...) horrela zentzurik ez zuela konturatzen hasi nintzen, eta gainbehera etorri zitzaidan. Zulora erori nintzen, depresioak jota. 38 urte nituen eta lur jota nengoen.

## EMAKUMEAK GUSTATZEN ZAIZKOLA esateko erabakia

Pixkanaka hasi nintzen hobera egiten, eta gero eta argiago nekusan bikote-harremana apurtu egin behar nuela. Arturorekin berba egitea erabaki nuen. Banaketa bizkortu egin zen. Gauza asko izan dugu komunean, eta izaten jarraitzen ditugu, baina banaketaren ostean sekulako liberazioa sentitu nuen, eta ezkontza-ohea ohe liluragarri bihurtu zen.

Arazorik gogorrena seme-alabekikoa da. Banandu ginenean 10, 14 eta 15 urte zituzten. Egun batean eseri eta "mintza gaitezen" esan nien. Eta hala kontatu nien neure historia. Negarrez ari nintzen. Seme zaharrena altxatu eta esan zidan: "txarto pasatu duzu, ezta?" eta neuk erantzun: "ez oso txarto, egia esan, baina nire bizitza errespeta dezazuen nahi dut, nik zuena errespetatu eta errespetatuko dudan moduan, eta sentitzen duzuenari jarraikitzea nahiko nuke, hori gomendatzen dizuet, ez dezazuen nik bizitako sufrimendua jasan". Nire neba-arrebei ere esan nien; batzuek ulertu zuten, beste batzuek, aldiz, ez. Ondoren, lagunarteari.

Lehenengo harremana emakume batekin Neska batekin harremana izan nuen. Senarrak horren berri izan zuen, baita neskaren senarrak ere. Senarra uztekotan izan zen neska; zalantza ugari izan zituen. Bitxia bada ere, nik urte batzuk lehenago pasatakoa ikusten nuen beragan, baina ondo baino hobeto ohartzen nintzen nork bere unea duela erabakiak hartzeko, eta erabakia hartzerakoan oso argi izan behar dituzula hari-muturrak, oso korapilatsua izaten baita kontua. Berak egun osoa ematen zuen nire etxera sartu-irtenak egiten, eta auhendari baten gisara negarrez, ez baitzen erabaki bat hartzeko gauza. Handik hiru urtera, horrela ezin genuela jarraitu eta argi izan bitartean harremana bertan behera utzi behar genuela esan nion.

## Etorkizuna

Gaur egun, 68 urte ditudala, emakumeenganako erakarmen hori naturaltasun osoz bizitzen saiatzen nahiz. Nire ibilbideari begiratuta, sentsazioa dut buruhauste ederrak sortzen ditugula guztiz xumeak diren gauzekin, baina jakina! xumeak dira inguruak nahi ez duzun joera hartzera behartzen ez bazaitu, eta sexualitateak zer izan behar duen aldez aurretik inposatu nahi ez dizutenean.

Ez dakit etorkizunak zer ekarriko didan, baina zirikatze aldera - eta ez da horregatik egia txikiagoa - sarritan esan ohi dut, lehenengo neurea ez zen harreman bat izan nuela, eta orain, neurea izateko prest nagoenean, ez dudala inolako harremanik. Alegia, den-dena argi dudalarik, ez dudala nahi dudan harremana aurkitzen. Oraingoz, noski!

*Izenak eta leku geografikoak fikziozkoak dira. Eskerrik asko Luciari, bihotz-bihotzez, bere kontakizun baliotsua hemen agertzen uzterakoan erakutsitako eskuzabaltasunagatik.*